Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

692

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Kultura sailburuaren 2008ko uztailaren 1eko Aginduan azaltzen den diru-kopurua handitzen duena, alegia, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta 2008rako deialdia egiten duen Aginduan.

Kultura sailburuaren 2008ko uztailaren 1eko Aginduak (2008ko uztailaren 23ko EHAA, 140. zenbakia) Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta 2008rako deialdia egiten zuen.

Kontuan izanda aurkeztu den eskabide-kopurua, dirulaguntzen onuradun gerta daitezkeenek garatuko dituzten egitasmoen garrantzia eta, ondorioz, eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak, Agindu honen lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusten denari jarraiki, beharrezkotzat jo du aipatutako aginduan azaltzen den diru-kopurua moldatzea. Egingo den aldaketa Aginduaren xedera zuzendutako diru-kopurua handitzea izango da. Izan ere, hori eginez, egitasmoen bideragarritasuna bermatu ahal izango da. Badago horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar den besteko aurrekontu-dotazio egokia.

Hori dela eta,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 2008ko uztailaren 1eko Aginduaren 2.2 artikuluan azaltzen den diru-kopurua moldatzea, Agindu bereko lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren babesean. Ondoko era honetan geratuko da idatzita:

«2.– Agindu honen babesean emango diren dirulaguntzak finantzatzeko kredituaren zenbateko orokorra milioi bat eta laurogeita bost mila (1.085.000) eurokoa izango da.»

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

692

RESOLUCIÓN de 15 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incrementa la cantidad que aparece en la Orden de 1 de julio de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y se efectúa la convocatoria para el año 2008.

La Orden de 1 de julio de 2008, de la Consejera de Cultura (BOPV n.º 140, de 23 de julio de 2008), reguló el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y efectuó la convocatoria para el año 2008.

Teniendo en cuenta la cantidad de solicitudes presentadas, la importancia de los proyectos que desarrollarán los beneficiarios y, por tanto, la cantidad de las subvenciones solicitadas, la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, de acuerdo con la previsión contenida en la Disposición Adicional primera de esta Orden, ha estimado necesario adaptar la cantidad de dinero que aparece en la citada Orden. Dicha adaptación consistirá en el incremento de la cantidad de dinero, con objeto de garantizar la viabilidad de los proyectos. Existe para ello dotación presupuestaria suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma Vasca.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Incrementar la cantidad de dinero que aparece en el artículo 2.2 de la Orden de 1 de julio de 2008, al amparo de lo previsto en la Disposición Adicional primera de la misma Orden. Quedará redactado de la siguiente manera:

«2.– El importe global del crédito destinado a financiar las subvenciones que se concedan al amparo de esta Orden es de un millón ochenta y cinco mil (1.085.000) euros.»

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.